

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## ‘Artez hazi’ formazio lankidetza programak sekulako arrakasta izan du

*Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek lan-arriskuen prebentzioa lantzeko bideoa osatu dute, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren kanpaina baterako*

Osteguna, 2017.eko abenduak 14

110 ikaslek, Oinarrizko Lanbide Heziketakoak, Gizarteratze Zentroetakoak eta baita langabezian direnak, aritu dira ‘Artez hazi’ formazio programan. Barañaingo Auditorioarekin elkarlanean jardun dute Hezkuntza departamentuak, Nafarroako Osasun eta Lan Publikoaren Institutuak eta Nafarroako Lan Sarek. Helburua izan da Virgen del Camino, Donibane, Uharte eta Burlata zentroetako nahiz Etxabakoitz, Haritz Berri, eta Lantxotegi tailer profesionaletako ikasleek lan-arriskuen prebentziorako material didaktikoa osatzea, Osasun departamentuak Lanbide Heziketa zentroetan hedatu dezan.



Solana kontseilaria eta M<sup>a</sup> Jose Pérez Jarauta, “Artez hazi” proiektuko gainerako parte-hartzaileekin.

Ekitaldiaren aurkezpenean izan dira Hezkuntza kontseilari Maria Solana, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari María José Pérez Jarauta, Nafar Lan-saretik Trebakuntza Profesionalen Garapenerako zerbitzu zuzendari Ignacio Catalán, Nafarroako Osasun Publikoaren Lan Osasunerako zerbitzu zuzendari Iñaki Moreno, Lanbide Heziketa zerbitzu-zuzendari Esther Monterrubio eta Barañaingo alkate Oihaneder Indakoetxea. Arratsaldeko saioan Hezkuntza Zuzenari Orokor Roberto Perez eta Lanbide Heziketako zerbitzu-zuzendari Esther Monterrubio izan dira.

Hezkuntza administrazioak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak interesa daukate laneratu aurreko etapetan lan osasuneko edukiak eta irizpideak ezagutzen joateko metodologia zehatz eta berritzaileak ezartzen joateko. Horrela sortu da guztien arteko elkarlan programa.

Hezkuntza kontseilariak ‘Artez hazi’ moduko formazio programen garrantzia nabarmendu du, “ikasleak protagonista baitira. Gure geletan eta baita kanpoan ere (gaur bezala) gizarteratzeko baliagarriak diren ikasgaiak sustatu behar ditugu ikasleen egunerokoan aberasgarriak diren

esperientziak direlako. Eskola tradizionalaren ereduak gainditzeko urratsak ematen segi behar dugu, eta hau bezalako esperientziak sekulako aukera dira bestela formazio prozesu batean era hain aktiboan inplikatu ez liratekeen ikasleak erakartzeko”.

### **Lankidetzeta programa**

‘Artez hazi’ proiektuaren bidez hainbat diziplina artistiko landu dituzte, bai ikasleek, bai irakasleek. Artea balioan jarri dute hazteko eta ezagutzara heltzeko metodo gisa, modu transbertsealean landuz. Modu kolaboratiboan egindako lana da; izan ere, lehenengo irakasleek jaso dute formazioa, metodologia aktiboen bitartez beharrezko ezagutzak helarazteko ikasleei. Era berean, modu aktiboan eta parte-hartzailean jardunez, proiektuak, gainera, balio izango du Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunerako Institutuak garatu nahi duen kanpaina gauzatzeko, gazteen artean lan-arriskuen prebentzioa lantzeko. Hezkuntza kontseilariak adierazi bezala, hasierako helburua “handinahia” izan da, alegia, “prebentzio okupazionala lantzea dantzaren, hip-hoparen eta raparen bitartez; era horretan, gainerako lanbide heziketa zentroetan hedatuko den material didaktikoa sortzeko. Eta, gainera, ikuskizuna sortzea eta gauzatzea!”, azpimarratu du.

Barañaingo auditorioan aurkeztu duten ikuskizuna izan da programan parte hartu duten ikasleen ekoizpen lanaren amaiera. Esan bezala, aurrerantzean lan-arriskuen prebentziorako kontzientziazio kanpainari ekingo zaio, Oinarrizko Lanbide Heziketako eta Irabazi Asmorik Gabeko 26 zentrotan, 800 ikaslerengana iristeko. Lehenengo esperientzia honekin etorkizun hurbilean gainerako hezkuntza etapetara heltzeko oinarriak jarri nahi dira, batez ere Lanbide Heziketaren esparruan.

Oraingo honetan, Hezkuntza departamentuak ikasleen garraioa, lanbide heziketako irakasleen formazioa eta Barañaingo auditorioan egindako ikuskizunaren gastuak hartu ditu bere gain. Ikastetxeetako materialaren elaborazioa, maketazioa eta gainerako formazioa Osasun departamentuak hartuko du bere gain. Nafarroako Lan-Sarek, bestalde, bere gain hartu du ikasleen formazio zuzena. Eta La Caixa eta CAN Fundazioaren laguntza ere izan du programak.

### **“To rent or not to rent”**

*To rent or not to rent* izena du ikuskizunak eta hainbat diziplina nahastuz osatu dute, rap, hip-hop eta antzerkia barne. Pertsonen arteko desberdintasunek sormen artistikoan ez dutela eraginik adierazten du ikuskizunak. Kulturen eta errealitateen arteko nahasketak berritzeko eta ekimen artistiko berriak sortzeko fusio perfektua sortzen du arteak, gizarte eraldaketa gauzatzeko eragilerik onena. Hala, Barañaingo Auditorioak ekintza lerro nagusiari eusten dio: artea erabiltzea hezkuntza-tresna integratzaile gisa eta garapen pertsonalaren esperientziak ahalbidetzeko.

Esta iniciativa responde al esfuerzo del Departamento de Educación y del Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra (ISPLN) de aportar metodologías específicas y novedosas en la inclusión de contenidos y criterios de salud laboral en etapas prelaborales, en aquellos colectivos que probablemente estén expuestos a mayores niveles de riesgos en su vida laboral.

### **Programa colaborativo**

En el proyecto “Crecer con arte”, tanto alumnado como profesorado ha trabajado conjuntamente poniendo en valor el arte como método de crecimiento y conocimiento. Un trabajo conjunto en el que el profesorado se ha formado primero de manera adecuada para trasladar ese conocimiento al alumnado a través de metodologías activas. El profesorado, además, se ha involucrado de manera activa en este proyecto que servirá también para realizar una campaña de concienciación sobre prevención de riesgos en el trabajo del Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra y del Servicio Navarro de Empleo entre las y los jóvenes.



Bertaratutako publikoaren irudia.

Un objetivo inicial "ambicioso", ha destacado la consejera de Educación, "trabajar la prevención ocupacional a través de las disciplinas del baile, el hip hoy y el rap, para llegar a crear el material didáctico que se divulgará en el resto de centros".

Con el espectáculo presentado hoy en el Auditorio de Barañain, en doble sesión, se ha finalizado el trabajo de producción del alumnado participante en el programa de formación. Este proyecto servirá para realizar la campaña de concienciación de la prevención en riesgos laborales en los centros de FP básica, unos 26 centros, y de organizaciones sin ánimo de lucro que suman unos 800 alumnas y alumnos. Con esta primera experiencia se pretende establecer las bases para, en un futuro inmediato, continuar en otras etapas educativas prioritariamente en Formación Profesional.

En esta ocasión, el Departamento de Educación ha cubierto el transporte del alumnado, formación de profesorado de FP y los gastos del espectáculo en el Auditorio de Barañain. La elaboración, maquetación y la formación en los centros, con la difusión del video, correrá a cargo del Departamento de Salud. Por su parte, el Servicio Navarro de Empleo ha sufragado la formación directa del alumnado. Por último, también se han contado con aportaciones de La Caixa y la Fundación CAN.

### **“To rent or not to rent”**

El espectáculo "To rent or not to rent" es el resultado de un intenso trabajo conseguido a través de diferentes disciplinas como el rap, hip-hop o el teatro. Un espectáculo que pretende poner en valor la idea de la creatividad artística como espacio donde no importan las diferencias entre unas personas u otras, y donde el mestizaje de culturas y realidades produce una fusión perfecta para innovar y crear iniciativas artísticas que pueden servir de motor de transformación social.

Con la exhibición de este trabajo, el Auditorio de Barañain sigue apostando por una de sus líneas de acción más importantes: el arte como herramienta de educación integradora y posibilitadora de experiencias de crecimiento personal.